**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**

**53/2024 TXOSTENA**

| |
|---|
| **Gaia:** Lanpostuen Zerrenda aldatzea<br><br>**Espediente sustatzailea eta tramitatzailea:** Langileria saila<br><br>**Espediente zenbakia:** IDA_ERA_0159 (2024)<br><br>**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.6 artikulua |

## Aurrekariak

**Lehena.-** 2024ko urriaren 7an Langileria Saileko teknikariek CSV: 07E80010F4A600M8Z9J5C4R3E2 zenbakiarekin Bermeoko Udal Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamena egin dute. Hurrengoa proposatu da:

Lehenengoa: Bermeoko Udal lanpostuen zerrendan honako aldaketa hauek jasotzea:

1. Lan itunpeko izaerako lanpostu moduan agertzen diren ondorengo lanpostuak, funtzionario izaerara aldatzea eta iraungitzeko izaera kentzea:

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zerbitzu** | 1102207 | OFIZIALA (soldagintza) | 1 | C2 | 12 | 18.391,88 | 1 | 2021/05/28 | A | F | L | (1) | Hutsik |
| **Zerbitzu** | 1102207 | OFIZIALA (biltegia) | 1 | C2 | 12 | 18.391,88 | 1 | 2021/05/28 | A | F | L | (1) | |
| **Euskera** | 1114301 | ITZULTZAILEA | 1 | C1 | 18 | 21.192,36 | TG | - | A | F | L | BAT | Hutsik |
| **ATB** | 1109202 | ADMINISTRARI LAG. | 1 | C2 | 12 | 18.797,66 | 3 | 2021/05/28 | A | F | L | EG | Hutsik |

2. Honako plaza hauek Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko eskaletan sailkatzea:

- Liburutegi eta artxiboko laguntzailea (11150131)
- Liburutegiko atezaina (11150111)

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

- Azokako arduraduna (1102203)

3. Kultura eta hezkuntza saileko kulturako teknikari koordinatzaile lanposturi izena aldatzea, kulturako teknikaria jarriz.

4. Musika Eskolako ikasketa buru eta Musika Eskolako irakasle lanpostuei esleitutako maila zuzentzea, 17 maila jarriz.

5. Kirol saileko igeriketako monitore-sorosle lanpostuei iraungitzeko izaera ezarri.

6. Herriaren beharrizanei eraginkortasunez erantzun ahal izateko, herri lanetako peoi lanpostuko dotazioa gehitzea, beste bi lanpostu gehituz:

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zerbitzu | 1102108 | BIDE ETA HERRI LANETAKO PEOIA | 2 | LT | 8 | 17.414,60 | 1 | 2024/10/30 | A | F | L | EE | Hutsik |

7. Kale garbitasunerako plangintzan aurreikusitakoa bermatu ahal izateko, kale garbiketako peoi lanpostuen dotazioa igotzea, peoi bat gehituz, Alde Zaharreko ibilbidean eskuzko erratz makinaren erabilera bermatu ahal izateko.

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zerbitzu | 1102107 | KALE GARBITASUNEKO PEOIA | 1 | LT | 8 | 16.823,66 | 1 | 2024/10/30 | A | F | L | EE | Hutsik |

8. Antolakuntza eta Teknologi Berriak Sailaren misio eta lan lerroak, gaur egungo kontzeptu eta izenekin identifikatzeko honako eguneraketa egitea: BERRIKUNTZA, GOBERNU IREKIA ETA HERRITARREN ARRETA

- BERRIKUNTZA: Bai kudeaketa mailan zein teknologikoan egiten den lanagatik.
- GOBERNU IREKIA: Gardentasuna eta partaidetza bere gain hartzen ditu, datu irekien eta datu pertsonalen segurtasuna barne
- ETA HERRITARREN ARRETA: Hiru arreta bideak sail honek kudeatzen ditu azken 20 urteetan.

**Bigarrena**.- Espedientean 2024ko ekainaren 6ko eta 2024ko ekainaren 26ko negoziazio mahaiko aktak jaso dira.



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

**Hirugarrena.**- Espedientean ez dago hizkuntza politikako euskarazko hizkuntza eskakizunei buruzko eta derrigortasun datei buruzko txostena.

## Oinarri juridikoak

### 2.1. Aplikagarria den araudia

- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Zuzendua
- Abenduaren 1eko 11/2022 Euskal Enplegu Publikoaren Legea
- Apirilaren 2ko 7/1985 Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea
- Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen
- Abenduaren 31ko 22/2021 2022. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea
- Uztailaren 30eko 207/1990 Dekretua euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariak finkatzen dituena

### 2.2. Proposatzen diren aldaketen edukiari buruz

Kontuan izanda erabaki proposamena hurrengoak aztertuko dira txosten honetan:

2.2.1. Lanpostuen Zerrendaren edukia

2.2.2. Funtzionario izaera jasotzea

2.2.3. Lanpostuaren iraungitze izaera kentzea eta jartzea

2.2.4. Lanpostuaren izena aldatzea

2.2.5. Lanpostuei esleitutako destino maila zuzentzea

2.2.6. Lanpostuek Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko izaera izate

2.2.7. Lanpostuak gehitzea



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

2.2.8. Lanpostuen balorazioa

### 2.2.1. Lanpostuen Zerrendaren edukia

Hasteko, oinarrizkoa den urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilea, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Zuzendua onartzen duena, aipatu behar dugu, eta Lege horren 74. artikulu, hain justu ere. Artikulu horretan hitzez hitz zera esaten da: *"Las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares que comprenderán, al menos, la denominación de los puestos, los grupos de clasificación profesional, los cuerpos o escalas, en su caso, a que estén adscritos, los sistemas de provisión y las retribuciones complementarias. Dichos instrumentos serán públicos".*

Zentzu berean, abenduaren 1eko 11/2022 Euskal Enplegu Publikoari buruzko legeak dio 45. artikuluan:

*"1. Las relaciones de puestos de trabajo son el instrumento mediante el cual las administraciones públicas vascas racionalizan y ordenan sus estructuras internas, determinan sus necesidades de personal, definen los requisitos exigidos para su desempeño y clasifican cada uno de los puestos de trabajo, de acuerdo con los criterios de eficacia, eficiencia y racionalidad organizativa.*

*2. Las relaciones de puestos de trabajo incluirán, conjunta o separadamente, la totalidad de los puestos de trabajo de naturaleza estructural que se hallen dotados presupuestariamente reservados a personal funcionario, personal laboral y personal eventual.*

*3. Las relaciones de puestos de trabajo, así como sus modificaciones, se publicarán en el «Boletín Oficial del País Vasco», o en el del territorio histórico respectivo cuando correspondan a diputaciones forales o entidades locales. Los efectos derivados de las relaciones de puestos de trabajo comenzarán a partir del día siguiente a su publicación,*

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*salvo que expresamente se prevea otra fecha. Todo ello, a efectos de garantizar la transferencia de los datos contenidos.*

*4. A fin de facilitar el conocimiento de la situación de las relaciones de puestos de trabajo en cada momento y de facilitar su gestión, los órganos competentes en materia de empleo público actualizarán periódicamente la información sobre las mismas. Asimismo deberán estar expuestas en la sede electrónica de cada administración de manera consolidada, transparente y permanentemente actualizada.*

*5. No será precisa la modificación previa de la relación de puestos de trabajo en el supuesto de que los departamentos competentes en materia de empleo público de las respectivas administraciones públicas vascas procedan al cambio de adscripción de los puestos de trabajo del personal funcionario por reasignación, readscripción o redistribución de efectivos, siempre que el nuevo destino se encuentre ubicado en el mismo municipio –o campus, en el caso de la Universidad del País Vasco– en el que anteriormente prestaba servicios el personal afectado y no conlleve una modificación de sus condiciones de trabajo. Dicha circunstancia debe ser objeto de inclusión en la primera modificación de la relación de puestos de trabajo que se lleve a efecto desde la fecha en la que se produjo la readscripción.*

*6. En todo caso, la creación, supresión o modificación de puestos de trabajo se realizará a través de las relaciones de puestos de trabajo. De igual manera, las modificaciones de la estructura orgánica exigirán simultáneamente la modificación de las correspondientes relaciones de puestos de trabajo o instrumentos que las sustituyan.*

*A los efectos de lo dispuesto en este apartado, no se tendrán en consideración las modificaciones que tan solo afecten a la denominación de los departamentos o de los órganos a los que estén adscritos los puestos de trabajo y no afecten al contenido funcional.*

*7. Las relaciones de puestos de trabajo se ajustarán a las previsiones presupuestarias, de tal forma que no podrán contener puestos cuya dotación no pueda ser atendida con*

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6



| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08 | EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159<br>Datea: 22/04/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

*los créditos contemplados en las plantillas presupuestarias para el ejercicio correspondiente.*

*8. …*

*9. Las administraciones forales, locales y la Universidad del País Vasco aprobarán sus relaciones de puestos de trabajo por el órgano que resulte competente de acuerdo con su propia normativa."*

Lege bereko 46. artikuluan Lanpostuen Zerrendaren edukia jaso da:

*"1. Las relaciones de puestos de trabajo indicarán necesariamente para cada uno de ellos los siguientes datos:*

*a) La denominación del puesto y las dotaciones que existan de cada uno de ellos.*

*b) El departamento o centro orgánico al que se halle adscrito.*

*c) En el caso de puestos reservados a personal funcionario, los grupos o subgrupos de clasificación profesional y los cuerpos, escalas u otros sistemas a los que estén, en su caso, adscritos. Los puestos de trabajo podrán adscribirse indistintamente a más de un grupo, subgrupo, cuerpo o escala.*

*d) En el caso de puestos reservados a personal laboral, el grupo profesional que, en cada caso, corresponda.*

*e) El sistema de provisión, ya sea concurso o libre designación, y, en su caso, la determinación de las administraciones públicas a cuyo personal se encuentre abierta dicha provisión.*

*f) Las retribuciones complementarias vinculadas al puesto de trabajo.*

*g) El perfil lingüístico del puesto de trabajo y, en su caso, la fecha de preceptividad.*

*h) El régimen de dedicación.*

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6



| | | |
|---|---|---|
| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08 | EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159<br>Datea: 22/04/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |

*i) El carácter singularizado o normalizado del puesto de trabajo.*

*2. En las relaciones de puestos de trabajo se concretarán, asimismo, los requisitos específicos que, en su caso, se exijan para el desempeño de un determinado puesto de trabajo.*

*3. Únicamente a través de las relaciones de puestos de trabajo se podrá llevar a efecto la supresión de puestos de trabajo o de dotaciones como consecuencia de los procesos de análisis de cargas de trabajo, previa negociación con la representación de personal.*

*…"*

Apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikuluak xedatzen du Toki erakundeek haien erakundeko Lanpostuen Zerrendaketa egin beharko dutela funtzio publikoaren inguruko oinarrizko legediak dioenaren arabera. Gaineratzen du Estatuari dagokiola Lanpostuen Zerrendak, lanpostuen deskripzioak eta horien eraketarako bete beharreko baldintzak lantzeko oinarri hartu beharko diren arauak ezartzea.

Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126.4. artikuluak xedatu du Lanpostuen Zerrendak funtzio publikoaren oinarrizko legedian jasotako edukia izan beharko dutela eta garatu beharko direla apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikuluan jasotako arauak oinarritzat hartuz.

### 2.2.2. Funtzionario izaera jasotzea

Toki Erakundeen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 oinarrizko legearen 92. artikuluan hurrengoa jasotzen da:

*"2. Con carácter general, los puestos de trabajo en la Administración local y sus Organismos Autónomos serán desempeñados por personal funcionario.*



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*3. Corresponde exclusivamente a los funcionarios de carrera al servicio de la Administración local el ejercicio de las funciones que impliquen la participación directa o indirecta en el ejercicio de las potestades públicas o en la salvaguardia de los intereses generales. Igualmente son funciones públicas, cuyo cumplimiento queda reservado a funcionarios de carrera, las que impliquen ejercicio de autoridad, y en general, aquellas que en desarrollo de la presente Ley, se reserven a los funcionarios para la mejor garantía de la objetividad, imparcialidad e independencia en el ejercicio de la función."*

Zentzu berean dihardu 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 9. artikuluak, zeinak bigarren atalean dioen:

*"2. En todo caso, el ejercicio de las funciones que impliquen la participación directa o indirecta en el ejercicio de las potestades públicas o en la salvaguardia de los intereses generales del Estado y de las Administraciones Públicas corresponden exclusivamente a los funcionarios públicos, en los términos que en la ley de desarrollo de cada Administración Pública se establezca."*

*Gainera, Toki Erakundeen legezko xedapenak arautzen dituen 781/1986 Legegintzako Errege dekretuak 169. artikuluak eta hurrengoek arautzen dituzte funtzionario izaera duten administrazio orokor eta bereziko eskalak. Espresuki, 169. artikuluak xedatzen du:*

*"1. Corresponde a los funcionarios de la Escala de Administración General el desempeño de funciones comunes al ejercicio de la actividad administrativa. En consecuencia, los puestos de trabajo predominantemente burocráticos habrán de ser desempeñados por funcionarios técnicos, de gestión, administrativos o auxiliares de Administración General.*

*…*

*a) Pertenecerán a la Subescala Técnica de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de gestión, estudio y propuesta de carácter administrativo de nivel superior.*

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6



| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08 | EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159<br>Datea: 22/04/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
| --- | --- | --- |

*b) Pertenecerán a la subescala de gestión de Administración General los funcionarios que realicen tareas de apoyo a las funciones de nivel superior.*

*c) Pertenecerán a la Subescala Administrativa de Administración General, los funcionarios que realicen tareas administrativas, normalmente de trámite y colaboración.*

*d) Pertenecerán a la Subescala Auxiliar de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de mecanografía, taquigrafía, despacho de correspondencia, cálculo sencillo, manejo de máquinas, archivo de documentos y otros similares.*

*e) Pertenecerán a la Subescala de Subalternos de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de vigilancia y custodia interior de oficinas, así como misiones de Conserje, Ujier, Portero u otras análogas en edificios y servicios de la Corporación.*

…"

172. artikuluak dio:

"1. Pertenecerán a la Subescala de Servicios Especiales, los funcionarios que desarrollen tareas que requieran una aptitud específica, y para cuyo ejercicio no se exija, con carácter general, la posesión de títulos académicos o profesionales determinados.

2. Se comprenderán en esta Subescala, y sin perjuicio de las peculiaridades de cada Corporación, las siguientes clases:

a) Policía Local y sus auxiliares.

b) Servicio de Extinción de Incendios.

c) Plazas de Cometidos Especiales.

d) Personal de Oficios.



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

…"

Abenduaren 31ko 11/2022 Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 44. artikuluak hurrengoa dio:

"44. artikulua.– Funtzio publikoen erreserba. Salbuespenak.

1.– Funtzionario publikoak ariko dira, eskuarki, euskal administrazio publikoetako lanpostuetan.

2.– Oro har, euskal administrazio publikoetan, funtzionario publikoentzat erreserbatuta daude funtzio hauek bereziki: administrazio publiko bakoitzaren ahal publikoak egikaritzen edo interes orokorrak zaintzen zuzenean nahiz zeharka parte hartzea eskatzen dutenak. Funtzio horien artean daude, besteak beste:

a) Administrazio-espedienteen instrukzioa edo ebazpen-proposamena egitea.

b) Administrazio-arauak edo -ebazpenak betetzen diren ikuskatzea, zaintzea edo kontrolatzea.

c) Polizia-aginduak.

d) Ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-kudeaketaren kontrola eta fiskalizazioa.

e) Kontabilitatea.

f) Diruzaintza.

g) Fede publikoa.

h) Nahitaezko diru-bilketa.

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

i) Erregistroetako inskripzio, idazpen, ezerezte eta gainerako administrazio-egintzak, erregistroak euskal administrazio publikoen titulartasunekoak direnean.

j) Arau juridikoak prestatzea.

k) Zehapenak ezartzea.

l) Arbitraje- eta bitartekaritza-ahalak egikaritzea.

m) Kontratazio-prezioen eraketa.

n) Baimentze-funtzioak.

ñ) Laguntzak eta dirulaguntzak ematea.

o) Gardentasunaren eta gobernu onaren arloekin lotutako jarduerak.

p) Larrialdien eta babes zibilaren kudeaketa.

3.– Lanpostu-zerrendetan aurreikus daiteke langile lan-kontratudunak aritzea lanpostu jakin batzuetan, baina esparru hauetan bakarrik:

a) Aldian behingo edo jarraipenik gabeko premiak betetzeko lanpostuak.

b) Alor jakin batzuetako enplegu instrumentalak –eraikin, ekipamendu eta instalazioen mantentze-lanak eta zaintza, arte grafikoak eta inkestak–, funtsezko funtzio dituztenak zerbitzuen funtzionamendurako behar den azpiegitura materiala mantentzea edo erabakiak hartzeko beharrezko diren azterlanak ahalbidetzeko datu objektiboak eskaintzea.

c) Izaera bereziko enpleguak, haietan jarduteko prestakuntza akademiko jakin baten beharrik ez dutenak, izan badiren kidegoei edo eskalei ezin esleituzkoak eta, lanpostuen edukiaren izaeragatik, beste lanpostu batzuk sortzeko egokierarik ematen ez dutenak.



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

| | | | |
|---|---|---|---|
| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08 | EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159<br>Datea: 22/04/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia | |

d) Zeregin hauek berezko dituzten enpleguak, edo zeregin hauek baino ez dituztenak: zaintza, harrera, informazioa, agiriak zaindu eta garraiatzea, agiriak erreproduzitzea edo zeregin horietan laguntzea.

e) Araututako irakaskuntza-sistemakoak edo unibertsitatekoak ez diren ikastetxeetako irakasleak, laguntzaileak eta espezialistak, eta adingabeak berrezteko zentroetakoak.

f) Lanpostu-zerrenden arabera, desgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako enpleguak, baldin eta, desgaitasunaren mota edo graduaren arabera, konpetentziak edo trebetasunak ezin badira frogatu desgaitasunen bat duten pertsonak sartzeko sistema orokorraren bidez.

g) Protokoloarekin eta ekitaldi edo kongresuak antolatzearekin soilik zerikusia duten enpleguak.

h) Lehen eta bigarren hezkuntza arautuko Erlijio-irakasleak.

i) Atzerriko postuak, laguntza-funtzioak dituztenak.

j) Enpleguen izaera edota enpleguak adskribatuta dauden organo edo unitateek ematen duten zerbitzuaren ezaugarriak direla-eta, Eusko Legebiltzarraren lege baten bitartez zehazten diren enpleguak.

4.– Era berean, euskal administrazio publikoek ahalmena izango dute funtzionarioak izendatzeko aurreko apartatuan zerrendatutako funtzioekin zerikusia duten lanpostuetan ari daitezen; betiere, sinesgarriro justifikatuta lanpostu horietan ahal publikoak egikaritzen direla.

5.– Era berean, enplegatu publiko hauek ere izan daitezke langile lan-kontratudun: foru- eta toki-administrazioetako organismo autonomo eta bestelako entitate instrumentaletakoak, baldin eta beren funtzioak gizarte-zerbitzu, enplegu, kultura eta kirol politiketara bideratzen badituzte.

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

6.– Dagokion sortze-legeak kontrakoa esaten ez badu, langile lan-kontratudun izango dira zuzenbide pribatuaren mendeko ente publikoen zerbitzuko langileak, enpresa-entitate publikoetakoak sozietate publikoetakoak, tokiko merkataritza-sozietateetakoak eta partzuergo, mankomunitate eta fundazio publikoetakoak; nolanahi ere, funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak izango dira, beti, agintaritza edo ahal publikoak baliatzea dakartenak."

Behin Lanpostuen Zerrenda aldatuta, eta beraz, proposatutako lanpostuei funtzionario izaera emanda, ezinbestekoa da kontuan hartzea gaur egun laboral moduan daudenak funtzionarazteko prozesua egin behar dela.

Zentzu horretan, 2007ko irailaren 1eko Auzitegi Gorenaren epaia daukagu, non zehazten den funtzionarazteko aukera mugatua dela soilik funtzionarioak izan behar diren lanpostuetarako. Horregatik, justifikatu behar da proposatutako lanpostuak euren funtzioengatik funtzionarioek soilik burutu ditzaketela eta espedientean ez da behar beste justifikatu planteatzen diren lanpostuak (ofizialak, itzultzailea eta administrari laguntzailea) soilik funtzionario izaera izan behar dutela.

Itzultzailearen kasuan, C1 moduan mantentzen da lanpostua eta gogorarazi behar da aztertu behar dela lan talde hori bere funtzioekin bat badator.

Horretaz gain, kontuan izan Gizarte Ongizate Saileko gizarte langileak laboral moduan jarraitzen dutela.

### 2.2.3. Lanpostuaren iraungitze izaera kentzea eta jartzea

Proposamenean ez da zehazten zein lanposturi kendu zaion iraungitzeko izaera. Ostera, igeriketako monitore – sorosle lanpostuetan iraungitze izaera jartzea jaso da.

### 2.2.4. Lanpostuaren izena aldatzea

Izena aldatzearen inguruko aukera abenduaren 1eko 11/2022 Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 45. artikuluko 5. atalean jaso da:



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

“6.– Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezko tresnak.

Apartatu honetan xedaturik dagoenerako, aldaketa hauek ez dira kontuan hartuko: eduki funtzionala ukitu gabe, lanpostuak adskribatuta dauden sail edo organoen izenari bakarrik eragiten diotenak.”

Beraz, proposatutako aldaketa zuzena da.

### 2.2.5. Lanpostuei esleitutako destino maila zuzentzea

Egitezko akats baten aurrean gaude eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109. 2. artikuluaren arabera: *“ Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos.”*

Auzitegi Nazionalaren 290/2016 Epaiak Auzitegi Gorenaren 2014ko urriaren 3ko epaiak egitezko akats, akats material edo akats aritmetikoaren doktrina jasotzen du, eta egitatezko akatsak edo akats materialak izan behar dituen ezaugarriak finkatzen ditu, honako hauek hain zuzen ere:

1. Oinarrizko errakuntza hutsak izan behar dira (izenetan, datetan, eragiketa aritmetikoetan edo dokumentuen transkripzioetan), eta ez da beharrezkoa izango aplikatu beharreko arau juridikoen interpretazioetara jotzea.
2. Ohartarazten den administrazio-espedienteko datuak nahikoa izan behar dira ondorio horretara heltzeko.
3. Kasu horietan, berez, ez da egokia administrazioaren egintza irmo eta onartuen berrikuspenera ofizioz jotzea.
4. Egintzaren zentzuan ez du funtsezko aldaketarik eragin behar, errore gisa planteatzen denak ezin du balorazio-judizio batera eraman edo kalifikazio juridikoko eragiketa eskatu.
5. Akats materiala edo aritmetikoa zuzentzearen prozedura ezin da erabili, benetan berrikuspen prozedura erabili behar izan denean.



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

6. Irizpide murriztailearekin aplikatu behar da.

Beraz, kasu honetan egitezko akatsaren aurrean gaude eta proposamena zuzena da.

**2.2.6. Lanpostu batek Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko izaera izatea**

Aurretik jasotakoaren ildotik, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege-Dekretuko 169. artikuluan eta hurrengoetan administrazio orokorreko eta administrazio bereziko eskalak bereizi dira. Izan ere,169. artikuluan Administrazio Orokorreko eskalan dauden funtzionarioen funtzioak jaso dira: "*Corresponde a los funcionarios de la Escala de Administración General el desempeño de funciones comunes al ejercicio de la actividad administrativa. En consecuencia, los puestos de trabajo predominantemente burocráticos habrán de ser desempeñados por funcionarios técnicos, de gestión, administrativos o auxiliares de Administración General.*"
Aldi berean, Administrazio orokorreko eskalaren barruan hainbat azpieskala jaso izan dira:

*"a) Pertenecerán a la Subescala Técnica de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de gestión, estudio y propuesta de carácter administrativo de nivel superior.*

*b) Pertenecerán a la Subescala de gestión de Administración General los funcionarios que realicen tareas de apoyo a las funciones de nivel superior.*

*c) Pertenecerán a la Subescala Administrativa de Administración General, los funcionarios que realicen tareas administrativas, normalmente de trámite y colaboración.*

*d) Pertenecerán a la Subescala Auxiliar de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de mecanografía, taquigrafía, despacho de correspondencia, cálculo sencillo, manejo de máquinas, archivo de documentos y otros similares.*



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*e) Pertenecerán a la Subescala de Subalternos de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de vigilancia y custodia interior de oficinas, así como misiones de Conserje, Ujier, Portero u otras análogas en edificios y servicios de la Corporación.*

*Podrá establecerse la normativa adecuada para que los puestos de trabajo atribuidos a esta Subescala puedan ser desempeñados por funcionarios de Servicios Especiales que, por edad u otras razones, tengan disminuida su capacidad para misiones de particular esfuerzo o penosidad, pero que conserven la requerida para las tareas de Subalterno."*

Ostera, 170. artikuluan Administrazio Bereziko funtzionarioen funtzioak zeintzuk diren jaso izan dira:

*"1. Tendrán la consideración de funcionarios de Administración Especial los que tengan atribuido el desempeño de las funciones que constituyen el objeto peculiar de una carrera, profesión, arte u oficio.*

*2. Los puestos de trabajo a desempeñar por funcionarios de servicios especiales podrán existir en cualquier clase de Corporación.*

*3. El personal que forme parte de los Servicios de Informática de las Corporaciones locales, que no resulte incluido en las Subescalas de Administración General, será clasificado según la naturaleza de su especialidad y los títulos exigidos para su ingreso, en la clase que corresponda de las Subescalas Técnicas o de Servicios Especiales."*

171. artikuluak Administrazio Bereziko eskalaren barruan dagoen azpieskala teknikoa arautu du:

*"1. Pertenecerán a la Subescala Técnica de Administración Especial, los funcionarios que desarrollen tareas que son objeto de una carrera para cuyo ejercicio exigen las leyes estar en posesión de determinados títulos académicos o profesionales.*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08 | EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159<br>Datea: 22/04/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

*En atención al carácter y nivel del título exigido, dichos funcionarios se dividen en Técnicos Superiores, Medios y Auxiliares, y, a su vez, cada clase podrá comprender distintas ramas y especialidades."*

Berriz, 172. artikuluak Administrazio Bereziko eskalaren barruan dagoen zerbitzu berezien azpieskala arautu du:

*"1. Pertenecerán a la Subescala de Servicios Especiales, los funcionarios que desarrollen tareas que requieran una aptitud específica, y para cuyo ejercicio no se exija, con carácter general, la posesión de títulos académicos o profesionales determinados.*

*2. Se comprenderán es esta Subescala, y sin perjuicio de las peculiaridades de cada Corporación, las siguientes clases:*

*a) Policía Local y sus auxiliares.*

*b) Servicio de Extinción de Incendios.*

*c) Plazas de Cometidos Especiales.*

*d) Personal de Oficios."*

Abenduaren 1eko 11/2022 Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 46. Artikuluko 1. ataleko c azpiatalean zera jaso da:

*"c) En el caso de puestos reservados a personal funcionario, los grupos o subgrupos de clasificación profesional y los cuerpos, escalas u otros sistemas a los que estén, en su caso, adscritos.* ***Los puestos de trabajo podrán adscribirse indistintamente a más de un grupo, subgrupo, cuerpo o escala."***

Beraz, euskal legeak espresuki aukera ematen du lanpostua hainbat eskalatara adskribitzeko. Dena den, ezinbestekoa da eskala zehazteko lanpostuaren funtzioak argi izatea. Funtzioak bi eskalekin bat badatoz ez dago legezko debekurik bi eskalak jartzeko, beti ere, horrela justifikatzen bada.



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6 | Sinadurea eta datea: JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08 | EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159 Datea: 22/04/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

Proposamenean bi eskalak jartzeko beharrizanaren justifikatu da.

### 2.2.7. Lanpostuak gehitzea

Lanpostuen Zerrendak Udalaren beharrizanak antolatzeko tresna egokiak dira. Horregatik, Udalak lanpostu berriak sor ditzake eta lanpostu berriak sortu behar ditu egiturazkoak badira. Beti ere, lau arau hauek kontuan izanda:

- Justifikatutako sortzeak burutzea: Espedientean justifikatu da.
- Aurrekontuan aurreikusita egotea eta zuzkidura izatea.
- Lan Eskaintza Publikoak onartzen direnerako abenduaren 23ko Estatuko 2023 urterako Aurrekontu Orokorren Legearen 20. artikuluan zehaztutako mugak errespetatzea.
- Lanpostu berriak betetzen direnerako, gogoratu behar da Estatuko 2023 urterako Aurrekontu Orokorren Legean 20. artikuluaren bosgarren atalean, aurreko urteetatik etorri den debekua ere jaso dela:

*"Artículo 20. 1. La contratación de personal laboral, así como los nombramientos de personal funcionario y estatutario habrán de realizarse con carácter fijo, indefinido o permanente, según proceda.*

*No se podrá contratar personal temporal, ni realizar nombramientos de personal estatutario temporal y de personal funcionario interino excepto en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables, en los supuestos y de acuerdo con las modalidades previstas por el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, en su redacción dada por Real Decreto-ley 32/2021, de 28 de diciembre, el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, en su redacción dada por la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, así como en el resto de normativa aplicable."*

Hori guztia aintzat hartuz, lanpostua sortzearen inguruan, justifikazio txostenetatik ondorioztatzen denez, herri lanetako peoi lanpostuaren eta kale garbiketako peoi lanpostuaren dotazioa gehitzeko beharrizana estrukturala da; beraz, ezinbestekoa da lanpostu hori Langileen Zerrendan jasotzea eta kontsignazio nahikoa izan behar du.



CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

## 2.2.8. Lanpostuen balorazioa

Lanpostuaren balorazioa dela eta, azpimarratu behar da idazkari honek hainbatetan aholkatu duenarekin lotuta, lanpostuaren balorazioa egin behar dela lanpostua sortzeko eta balorazio hori modu objektiboan egin behar dela. Dagokion espedientean ez da ageri balorazio objektiborik egin denik. Izan ere, nahiz eta dotazio gehitze bati buruz ari garen, espedientean ez da justifikatu nola baloratu den indarrean dagoen lanpostuaren, ezta lanpostu berriaren balorazioa.

Auzitegi Gorenak hainbestetan argitu duen moduan lanpostu berriak sortzerakoan dagokion balorazio objektiboa egin behar da. Horrelako balorazio objektiboak egin gabe onartu diren Lanpostuen Zerrendak, guztiz deusezak izango lirateke Zentzu horretan, Auzitegi Gorenaren 2012ko abenduaren 4ko 8355/2012 epaia daukagu, Barakaldoko Udalean hartutako erabakiari buruzkoa, non 2. argudio juridikoan hitzez hitz esaten den:

*"Luego, la Relación de Puestos de Trabajo que examinamos aprueba la creación de diversos puestos de trabajo , los clasifica de conformidad con un código de identificación, un requisito de titulación para su provisión y un perfil lingüístico, les atribuye un nivel de complemento de destino, así como una cuantía a devengar por complemento específico, y modifica además los complementos de destino y específico de puestos ya existentes, todo ello sin haber efectuado una previa valoración, con omisión del procedimiento establecido a tal efecto por la Corporación y en base a un proceso analógico o por asimilación que ni está previsto en la normativa aprobada por el Pleno, ni aparece debidamente documentado en el expediente administrativo, circunstancias que tiñen de arbitrariedad la Relación de Puestos de Trabajo . Por tanto, carece de la obligada motivación la actuación administrativa de ordenación de personal expresada en la Relación de Puestos de Trabajo impugnada, y en el particular alegado por la actora, deja sin base objetiva el establecimiento de las retribuciones complementarias para los puestos de nueva creación ¿que se identifican en los Anexos I y II obrantes a los folios 67, 68 y 69 del expediente administrativo-, así como la modificación de los complementos de destino y específico en los puestos ya creados -que resulta ser un único puesto,*

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Encargado de las Brigadas Municipales, según los mismos Anexos y a la vista de la RPT publicada en el BOB de 7 de julio de 2004-. En suma, en lo que a estos puestos de trabajo se refiere, la actuación administrativa recurrida infringe la garantía de motivación de los actos administrativos dictados en el ejercicio de facultades discrecionales( artículo 54.1.f) de la Ley 30/92 )."*

Beraz, ez dator bat zuzenbidearekin herri lanetako peoi lanpostua eta kale garbiketako peoi lanpostua Lanpostuen Zerrendan sortzea dagokion balorazio objektiboa egin barik.

**2.3. Proposatzen den aldaketaren baldintza formalei buruz**

Lanpostuen Zerrendaren izaera juridikoari dagokionez, zenbait doktrina eta jurisprudentzia aldaketa jasan ditu, baina gaur egun "hartzaile zehaztugabedun jarduera ugariko ekintza" moduan kalifikatu izan da. Izaera juridikoa kontuan hartuz, jarraitu beharreko prozedurak hurrengo pausuak izango lituzke:

a) Langileria saileko teknikariak txostena egin behar du

b) Langile Publikoaren oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34 eta 37.1.c) artikuluek xedatutakoa betetzeko asmotan, negoziazio-mahai orokorrarekin Lanpostuen Zerrendaren aldaketa negoziatu beharko da.

Izan ere, gogoratu behar da Lanpostuen Zerrenda edo horren funtsezko aldaketak negoziatu behar direla.

Aldaketa sustantzian moduan ulertzen da: lanpostuetara sartzeko sistema aldatzea, lanpostuen izaera (funtzionarioa, laborala, ebentuala…) aldatzea, lanpostu berriak sortzea, lanpostuak iraungitzea, destino osagarriak zein berariazko osagarriak aldatzea, klasifikazioak aldatzea… Ostera, antolaketarekin erlazioa duten aldaketak ez dira negoziatu behar (sailen izen aldaketak, lanpostuen izen aldaketak, eskatutako titulazioak...). Hori guztia Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 2ko edo 2008ko urriaren 20ko epaien arabera eta EAEko Auzitegi Nagusiaren 1998ko ekainaren 20ko epaiaren arabera (Errek. 1684/2004).



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Kasu honetan Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposatutako hainbat gai negoziatu beharrekoak dira, beraz, ezinbestekoa da negoziazioa eta negoziatzeko izan beharreko informazioa beharrezko aurrerapenarekin ematea.

Espedientean negoziazio mahaiko aktak jaso dira.

c) Hizkuntza eskakizunaren inguruan, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren14.2.n artikuluarekin eta 6/1989 Legearen 97.5 artikuluarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikako txostena eskatu da proposatu izan den hizkuntza eskakizuna aldatzearen ingurukoa, eta nahitaezko eta ez loteslea den txostena jaso da.

Espedientean ez dago txostena.

d) Erabaki proposamena egin beharko da

e) Udal kontuhartzailearen txostena beharko da, salbu eta aurretiazko fiskalizazio mugatutik salbuetsita badago.

f) Idazkariaren txostena beharko da

g) Proposamena Informazio Batzordeko irizpenaren esku utziko da, hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan txertatua izan dadin

h) Osoko bilkurako hasierako erabakia beharko da gehiengo soilez onartua

i) Lanpostuen Zerrendaren erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da jakintza orokorrerako eta Estatuko Administrazioari eta Erkidegoko Administrazioari helarazi beharko zaie, 30 eguneko epearen barruan (TRRL 127. art.).

j) Lanpostuen Zerrenda aldatzeko erabakiaren aurka borondatezko berraztertze errekurtsoa jartzeko aukera emango da edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera.

## 3. Ondorioak

Aurreko guztia kontuan hartuz, erabaki proposamenari **kontrako txostena** egiten zaio. Laburbilduz, hauek dira zuzendu beharrekoak eta kontuan izan beharrekoak:

**Proposamenari dagokionez:**

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08

EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159
Datea: 22/04/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Kontuan izan apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duena aplikagarria dela (786/1986 LEDari egiten zaio erreferentzia).
- Proposamenean ez da zehazten zein lanposturi kendu zaion iraungitzeko izaera.

**Espedienteko agiriei dagokienez:**

- Espedientean ez dago hizkuntza politikako euskarazko hizkuntza eskakizunei buruzko eta derrigortasun datei buruzko txostena.
- Espedientean ez dago kreditu atxikipenik.

**Edukiari dagokionez:**

- Funtzionario izaera izateko beharrizana ez da justifikatu lanpostuz lanpostu, lanpostuen funtzio konkretuak hartuta.

Kontuan izan behar da behin Lanpostuen Zerrenda aldatuta, funtzionarazteko prozesua egin beharko dela.

- Lanpostu berriak sortzeari buruz, lanpostu berriak sortzeko beharrizana sakonago justifikatu behar da, dagokion balorazio objektiboa egin behar da eta espedientean ziurtatu behar da zenbateko horiek aurrekontuan aurreikusita daudela.
- Lanpostuen balorazioa dela eta, balorazioa guztiz objektiboa izan behar da eta gaur egungo errealitatearekin bat etorri behar da. Ezinbestekoa da, lanpostuen balorazio eguneratua egitea, besteak beste, gaur egungo Lanpostuen Zerrendan dauden desberdintasunak konpontzeko eta aurreko erabakien legezkotasuna bermatzeko.
- Lanpostu berriak sortuta kontuan izan behar da behin-behineko izendapenak ekidin behar direla, finkotasunera jotzeko hautaketa prozesuak bideratuz.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalte barik. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta osoko bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6 | Sinadurea eta datea: JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08 | EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159 Datea: 22/04/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

Bermeon, 2024ko urriaren 8an

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

CSV: 07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E80010F71700F6K6S1E5Z0R6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 08/10/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/10/2024 13:36:08 | EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0159<br>Datea: 22/04/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|